

HIRIGINTZA COVID GARAIAN

Espazio publikoak bizi eta eraldatu



ARGITALPENARI BURUZ

HIRIGINTZA COVID GARAIAN

Espazio publikoak bizi eta eraldatu

Argitalpen honek “**Hirigintza Covid Garaian. Espazio publikoak bizi eta eraldatu**” topaketan parte hartu duten proiektuak, jarduerak eta lanerako erabilitako materialak biltzen ditu. Topaketa honen helburu nagusia hirigintzaren eta lurralde-plangintzaren etorkizunari buruzko hausnarketa kolektiborako gune bat sortzea izan da, COVID-19ren ondorioz 2020an bizi izandako osasun-krisiak sortutako testuingurutik abiatuta.

HIRIGINTZA COVID GARAIAN

Argitalpena:

Nafarroako Gobernua

Argitalpenaren koordinazioa:

cAnicca [a+d+u]

Testuak:

Thais Ibarrondo Robleda eta Carlos Muñoz Sánchez

Testuan berrikuspena:

Uxue Jauregi eta Beatriz Gómara

Esperientzien Artxiboko testuak:

Proiektu bakoitza aurkeztu duen pertsonak ekarriak (Lizarrako Udala, Ergosfera, Burgiko Udala, Nasuvinsako Birgaitze Saila, Silvestrina, Orekari, Colectivo Urbanas, Madre de Dios Auzo Elkartea, Iruñeko Udala, Accessibility Digest, MCO-SCPSA, La Casa del Reloj eta Vicus-en Lankidetzakomunitatea, Alicia Berlinches eta Miriam Bùe, msd paisajismo, El buen vivir).

Erronken Koadernoko testuak:

Agenda Urbana Española y Agenda 2030.

Argazkiak:

Xabier Apestegui (XAM)

Esperientzien Artxiboko irudiak:

Proiektu bakoitza aurkeztu duen pertsonak ekarriak

Diseinu grafikoa eta maketazioa:

cAnicca [a+d+u]

2020ko Abendua

Lege Gordailua:

DL NA 2072-2020

Creative Commons:

CC BY-NC-ND 4.0

Lan hau Creative Commons nazioarteko 4.0 esleipen-ez-komertzial-bideratuentzako lizentzia baten pean dago.

100 kopia argitaratzea

www.navarra.es/eu/web/encuentrosurbanismo2020

HIRIGINTZA COVID GARAIAN

Espazio publikoak bizi eta eraldatu

AURKIBIDEA

1	TOPAKETA	7
	<i>KONTZEPTU ESPARRUA</i>	8
	<i>JARDUERAK</i>	10
2	ESPERIENTZIEN ARTXIBOA	19
	<i>HIRI KONTAKIZUNAK</i>	22
	<i>PROIEKTUEN KATALOGOA</i>	42
3	ERRONKEN KOADERNOA	59
	<i>HIRI ETA LURRALDE JASANGARRIAK ETA ERRESILIENTEAK</i>	63
	<i>ESPAZIO PUBLIKOA ETA BERDEGUNEAK</i>	79
	<i>EKIPAMENDU ETA ZERBITZU PUBLIKOAK</i>	101
	<i>ETXEBIZITZA</i>	109
	<i>MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA</i>	125
	<i>KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA TRESNAK</i>	145
4	ELKARREKIN DISEINATZEKO TAILERRA	167
	<i>TAILERRA</i>	168
	<i>POSTER ZABALGARRIA</i>	ERANSKINA

TOPAKETA

Kontzeptu esparrua

Jarduerak

TOPAKETAREN KONTZEPTU ESPARRUA

2020. urteak aldaketa handia ekarri du bizi garen inguruneen diseinuaren lehentasunetan eta ulertzeko eran. Osasuna eta zaintzak erdigunean jarri dira espazio publikoak nahiz etxebizitzak birpentsatzeko orduan, baita lurraldea ulertzeko modua birpentsatzeko orduan ere. Bere logika batzuk zalantzan jartzen dituen errealitate berri batek (fikziotik gertukoa), dena kolpatu du.

2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuek, orain arte hamarna urteko epe luzagarrietan urrunetik begiratzen genituen erroka globalak biltzen dituzte. Horren aurrean, COVID-19ren etorrerak Hiri eta Erkidego Jasangarriak izateko eta horietan bizitzeko beharra premiazkoa dela erakutsi du (GJH 11). Beraz, ezinbestean iritsi da etxebizitza, espazio publiko eta hiri-antolamenduko esparruetan, besteak beste, egiteke dauden errokeni aurre egiteko garaia.

Beharrezkotzat jotzen dira ingurune erresilienteak, orekatuak, aldaketekiko malguak eta itzulgarriak. Azken batean, egokituak eta, batez ere, egokigarriak gaur egungo egoerara, pertsonen premietara eta gure habitata baldintza dezaketen faktoreetara (birus batek eraginda, 2020an bizi izandako egoera, kasurako).

“Hirigintza COVID garaian: espazio publikoak bizi eta eraldatu” izeneko topaketa gogoetargune gisa aurkezten da eta espazio publikoen kalitateaz, gure herri eta hirien diseinuaz, arkitekturaz eta hirigintzaz ikuspegi berrietatik arduratzen diren pertsonen dago zuzenduta. Bai eta, gure bizi-espazioa gaur egun jasaten duen osasun-krisia, krisi klimatiko, ekonomiko eta sozialarekin lotzen duen errealitatera egokitze konpromisoa duten pertsonen.

Topaketa honen bidez, profesionalen eta akademikoen, administrazio publikoen, alkateen eta herritarren kolektiboen eta ekimenen ezagutzak bildu nahi dira; bizipenetik, aztertzetik eta/edo esperientziatik abiatuta ekarpenak egiteko gune inklusiboa izanik. Hiri, herri eta lurralde jasangarriagoetara eta zaintzaileagoetara eramanen gaituzten aukerak ikusarazteko eta aztertzeke elkargunea.

Arkitekturarekin, hirigintzarekin eta plangintzarekin lotura duten esparru sozial, administratibo eta profesionaletik espazio publikoen garrantziari buruz hausnartzeko aukera bat da. Honela ulertuta espazio publiko horiek:

- + Ingurune bizidunak eta bizigarriak, erabilera desberdinak hartzeko eta premia desberdinetara egokitzeko gai izanen direnak.
- + Berdintasunerako lekuak, kohesiorakoak, eta pertsona guztientzat irisgarriak.
- + Herrien eta hirien eta horiek inguratzen dituen ingurunearen arteko harremanak sendotuko dituzten espazioak, natura eraikitako espazioan integratuz.

Modu inklusiboan lan egiteko unea da, eta hausnarketarako eta proposamenerako espazio atseginak sortzekoa, ezagutza sozial eta herrikoiaren eta ezagutza tekniko eta akademikoaren artean bitartekari lanak eginez, modu kolektiboan aitzina egiteko, bizitzen ari garen alarma-egoerak sortutako bultzada aprobetxatuz, eta ziurgabetasuna aldaketarako energia bihurtuz.

Lurralde
Antolamenduko,
Etxebizitzako,
Paisaiako eta Proiektu
Estrategikoetako
Departamentua

Nafarroako Gobernua

TOPAKETARI BURUZ

HIRIGINTZA COVID GARAIAN.

Espazio publikoak bizi eta eraldatu:

Topaketaren garapen-prozesua 2020ko ekainetik azarora bitartekoa izan da. Lehenengo etapan, gaia zentratzeko eta programa definitzeko ikerketa bat egin da. Bigarren etapan, berriz, topaketa bera da ardatza; irailaren 17an eta 18an burutu zen Tafallan eta Artaxoan (Nafarroa). Azken etapan ondorioak atera dira eta sortutako baliabide guztiak antolatu dira, argitalpen hau osatze aldera.

Topaketa lau jarduera-multzotan antolatu zen: Hiri Kontakizunak, Hitzaldiak, Elkarrekin Diseinatzeko Tailerra eta Bestelako begiradak.

Osasun-arloan izandako murrizketek zailtasunak ekarri bazituzten ere, ahalegina egin zen aurrez aurreko topaketa bat egiteko. Bertaratu ziren pertsona guztiak asko baloratu zuten ahalegin hori. Gainera, topaketako jarduera guztiak streaming bidez edo bideo diferituen bidez eman ziren.

Habitar y transformar
los espacios públicos
**ENCUENTRO
URBANISMO
EN TIEMPOS DE
COVID**



**HIRIGINTZA
COVID
GARAIAN
TOPAKETA**
Espazio publikoak
bizi eta eraldatu



17 + 18 . 09 . 2020
SEPTIEMBRE / IRAILAK
TAFALLA + ARTAJONA

www.encuentroubanismo2020.navarra.es

argibideak + información: encuentroubanismo2020.navarra@gmail.com

Jueves 17 Osteguna
**RELATOS
URBANOS**
Proiektuen aurkezpena
Presentación de proyectos
Centro Cultural TAFALLA
18:30

Asoc. Vecinal Madre de Dios
Burgiko Udala / Ayto. Burgui
Colectivo Urbanas
Ergosfera
Lizarrako Udala / Ayto. Estella
Nasuvinsa
Orekari Estudio
Silvestrina

Viernes 18 Ostirala
CHARLAS
Hitzaldiak
Centro Cultural TAFALLA
9:00
Jose Maria Ezquiaga
Ecosistema Urbano

Viernes 18 Ostirala
TALLER
Lantegia
Centro Cultural TAFALLA
11:15
Taller de co-diseño con
profesionales, personal técnico de la
administración y ciudadanía

Viernes 18 Ostirala
**OTRAS
MIRADAS**
Beste lako begiradak
ARTAJONA
17:45
Maria Urmeneta / RUTA
Isabel Martin / RECITAL

Antzakerria
Organtzak

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Manejo del entorno
Cultural

cAnicca
www.canicca.com

Herriaren Gaitasuna
Kulturalekua

Herriaren Gaitasuna
Tafalla
Euzko Lehiaketa

Herriaren Gaitasuna
Artajona



Hiri-kontakizunak

*Parte-hartzea:
aurrez aurre 35 lagun
linean 237 lagun*

Hirien eta herrien eraikuntza jasangarrian hainbat esparrutatik nola ari diren lanean erakutsiko diguten ekimenen aurkezpen laburrak. Topaketaren esparruarekin bat zetozen hainbat proiektu aurkeztu ziren, hainbat eskalari helduta eta hainbat lurralde eta eremutan kokatuta zeudenak. Proiektu horiek deialdi baten bidez hautatu ziren, eta tokiko administrazioei zein profesionaleri gonbidatu zitzairen parte hartzera. 'Esperientzien artxiboa' atalean, jarduera horri buruzko informazio gehiago jaso da, topaketaren webgunean edo QRaren bidez ikusi daitekena.





Hitzaldiak

Parte-hartzea:
aurrez aurre 33 lagun
linean 145 lagun

Dibulgazio- eta elkarrizketa-gunea. Jose Maria Ezquiagak eta Elena Castillok (Ecosistema Urbanokoak) Coviden garaian arkitekturari, hirigintzari eta plangintzari buruz duten begiradara hurbildu gintuzten. Gainerakoak bezala, hitzaldiak eskuragarri daude topaketaren webgunean eta QRaren bidez.



Elkarrekin Diseinatzeko Tailerra

Parte-hartzea:
aurrez aurre 24 lagun

Etorkizunerako estrategiak diseinatzea helburu duen lan kolektiborako gunea: profesionalen eta akademikoen ezagutza gurutzatuz, baita administrazio publikoen, alkateen eta herritar kolektibo eta ekimenen esperientzia ere. Bizipenetik, ezagutzatik eta/edo esperientziatik abiatuta, ekarpenak egiteko espazio inklusiboa. Lehendik dauden erronketan sakontzeko eta hiri, herri eta lurralde jasangarriagoetara eta zaintzaileagoetara eramanen gaituzten alternatibak aztertzeko aukera.



Bestelako Begiradak

Hirigintzara eta espazio publikora beste ikuspegi batzuetatik hurbiltzea: ibili, begiratu, hauteman, esperimentatu, entzun eta sentitu.



Ibili kolektiboa

Maria Urmenetak, 'Chocarro y Urmeneta S.L.P.' arkitektura-enpresakoak, gidari lanak egin zituen Artaxoako kaleetan barrena egindako ibilaldi batean, espazioak inklusiboak, jasangarriak... ote diren hausnartuz.



Beste modu batera nizitzeko letratxoak gorputzak, hiri-inguraldea eta hiria

Topaketaren amaiera gisa, Isabel Martinek (Cotidiana s.c.a-koa) bere "90.3 de vaciante" liburuko poemak errezitatu zituen Artaxoako Harresian; bere begiradan eta ahotsean barrena bidaia bat eskaini zigun, lurraldearen eta hiriaren eraikuntza oso modu berezian ulertaraziz.



Osasun-arloko murrizketak eta mugak zirela-eta, BESTELAKO BEGIRADAK jardueraren formatua aldatu behar izan zen; jarduera presentziala eta publikoa izan ordez, talde txiki batekin grabatu zen, ondoren linean zabaltzeko.



CERCO DE ARTAJONA

02. ANALIZANDO EL ESPACIO PÚBLICO EN ARTAJONA

¿Es un espacio inclusivo?

SANDERS. Arquitecto de escuela de arquitectura de Yale (NY Times):

- *"Hacer los espacios más inclusivos (...) para satisfacer las necesidades de los "cuerpos no conformes". Con esto se refiere a las personas cuya edad, género, raza, religión o habilidades físicas o cognitivas a menudo los ponen en desacuerdo con el entorno construido, que generalmente está diseñado por personas que incorporan normas culturales dominantes. En la arquitectura occidental, lo "normal" ha sido explícitamente definido — por el antiguo arquitecto romano Vitruvio, por ejemplo, cuyos conceptos inspiraron el "Hombre de Vitruvio" de Leonardo da Vinci, y, en tiempos de Kahn, por el "Hombre modular" de Le Corbusier— como un hombre blanco, joven y alto."*

¿Es un espacio culturalmente memorable?

- ¿Contribuye a mantener una identidad propia en un mundo globalizado?
- ¿Contribuye a proteger y salvaguardar el patrimonio cultural y natural?
- ¿Permite conectar a las personas con las personas, a las personas con la sociedad y a las personas con la naturaleza?

¿Es un espacio sostenible?

- ¿Contribuye positivamente a evitar el cambio climático?
- ¿Es la urbanización ambientalmente sostenible o puede llegar a serlo?
- ¿Es la urbanización económicamente sostenible?

¿Es un espacio seguro?

- ¿Contribuye a la seguridad vial?
- ¿Atiende a las necesidades de personas en situación de vulnerabilidad?


¿Es un espacio resiliente?

- ¿Resuelve las necesidades percibidas como tales del momento y resolverá las necesidades desconocidas del futuro?

Urbanismo en tiempos de Covid Habitar y transformar los espacios públicos

OTRAS MIRADAS: CAMINAR COLECTIVO
Artajona - Artaxoa





*Maria Urmenetak
Artaxoan barrenako
ibilbiderako
proposatutako
gida-planoaren
egokitzapena.*

2

ESPERIENTZIEN ARTXIBOA

Hiri-kontakizunak
Proiektuen katalogoa

ESPERIENTZIEN ARTXIBOARI BURUZ

Dokumentu honetan, modu batean edo bestean topaketaren parte izan diren esperientziak eta proiektuak jaso dira. Lehen zatian ageri direnak, ‘Hiri Kontakizunak’, izen bereko jardueran parte hartzeko deialdi baten bidez hautatutako proiektuak dira. Jarduera hori irailaren 17an egin zen. Bigarren zatian, ‘Proiektuen Katalogoa’ izenekoan, programaren mugagatik jardunaldietan aurkezteko hautatu ezin izan ziren ekimenak biltzen dira. Bai batzuen eta baita besteen ordezkariak, Elkarrekin Diseinatzeko Tailerraren parte izan ziren, haien ezagutza eta esperientzia ekarriz.

MUCHAS GRACIAS ESKERRIK ASKO



ORRE estudio
arkitekto eta diseinagileak



www.orekari.coop



Hiri- Kontakizunak

Orratz aldaketa Lizarran: beste bide bat hiri-harremanetarako

Coruñako hirigunean dauden adinekoen egoitzak COVID-19aren krisi-garaian

Burgi Bizigarria

Eraikitako etxebizitza bizi-premia berrietara egokitu eta malgutu

Hirien Sistema. Gizarte-eginkizun berrietarako mugikortasuna

PeriferiaBirpentsatu

Jane Jacobs paseoak: 'Hirigintza genero-ikuspuntutik'

Calles Abiertas Madre de Dios auzoan

Lorategi jasangarriak

Egilea:

Lizarrako Udala

Kokapena:

Lizarra (Nafarroa)

Orratz aldaketa Lizarran: beste bide bat hiri-harremanetarako

Lizarran burutzen ari den partaidetzazko hirigintza-proiektu taktikoa da.

Udalak, batez ere pandemia-egoerak bultzatuta, hainbat ekintza landu ditu herritarrei oinezkoentzako espazio gehiago emateko, segurtasun-jarraibideak betetzea ahalbidetuz.

“Biribil” prozesua jarri zen martxan; auzo baten mugikortasun aldaketak aztertu zituen eta belaunaldien arteko bizikidetzarako espazio seguru bat planteatzeko. Prozesu horrek “Orratz aldaketa” proiekturako oinarriak ezarri zituen. Proiektua gune berezietako batean kokatzen da; trafikoz gainezka dagoen biribilgune batean. Biribilgune hori auzotarren, hezkuntza-komunitatearen, adinekoen egoitzaren eta Euskal Herriko Trenbidearen Bide Berdean sartzen diren ibiltarien topagunea da.

Egungo bide natural horren laguntzaz, orratz-aldaketa gauzatzea bilatzen da. Norabide-aldaketa bat da, mugikortasun jasangarritik abiatuta, hiri seguru, inklusibo eta parte-hartzailea lortzea helburu duena.



Egilea:
Ergosfera



Kokapena:
Coruña
(Galizia)

Coruñako hirigunean dauden adinekoen egoitzak COVID-19aren krisi-garaian

Coruñako hirigunean dauden adinekoen egoitzei buruzko ikerketa-proiektua, COVID-19aren krisi-garaian. Hiri-ikuspegitik egindako azterlana da, ez hainbeste krisiak zentro horietan izan duen eragin handiaren gertakaritik, baizik eta azken hamarkadetan hiriari eta lurraldeari dagokienez garatu den egoitzen eredutik: erabiltzaileen bizitzarako eta ingurunean integratzeko aukeretan eman daitezkeen ondorioei buruz, egoitzen arkitektura-forma, egoera eta hiri-baldintzen arabera.

Sortzen ari diren azterketa gehienak egoitza horien titulartasunari eta kudeaketari buruzkoak dira (gai hori funtsezkoa izanik egoitzen ezaugarri batzuk azaltzeko). Proiektu honek, ordea, egoitza-eredua bera lantzen du, lurraldeko errealitate material gisa, eta jende askorentzat etxebizitza eta eguneroko lantoki edo bisita-leku gisa.

<http://www.ergosfera.org/archivo/COVID-19/>



**Egilea:**

Burgiko Udala eta
cAnicca

Kokapena:


Burgi (Nafarroa))

Burgi Bizigarri

Burgiko espazio publikoei buruz taldean hausnartzeko proiektu bat da, adinekoen ikuspegitik eta premietatik abiatuta. Hiri Landutako Diagnostiko Parte-hartzaileak, Burgiko auzotarren lankidetzari esker, udalerrriaren hiri-diseinuarekin lotutako beharrak antzematea eta ildo estrategiko batzuk sortzea ahalbidetu du. Ildo estrategiko horiek hiri-kudeaketako tresna izanen dira toki-administrazioarentzat, eta kasu pilotu bat Nafarroako Gobernuarentzat.

Diagnostikoaren ondorengo lehen emaitzetako bat Beheko Plazan egindako hirigintza esku-hartze taktikoa izan da; harremanetarako gune nagusi bat eta bizilagunentzako topalekua, autoek erabat hartuta.

Esku-hartzearekin plaza berregituratu egin da, espazioa autoentzat eta oinezkoentzat antolatuz, eta oinezkoei pribilegio eta leku gehiago emanez. Auzolanaren bidez, altzari moldakorrak eta mugikorrek jarri dira; jaiegunetan kendu ahal izanen dira eta, gainera, tamaina txikiko landaredia har dezakete. Lurrean margotutako almadia handi batek, Burgiko Almadien jaitsiera tradizionalaren sinboloak, autoei irabazitako espazioak josten ditu.



Egilea:


Nasuvinsaren
Birgaitze Saila

Kokapena:

Nafarroa

Eraikitako etxebizitza bizi-premia berrietara egokitu eta malgutu

Gure bizitegi-parkearen ezaugarriek eragin handia dute herritarren bizi-kalitatean. Pandemia honetan agerian geratu den lehen gabezia etxebizitzaren barnealdearen eta kanpoaldearen arteko harreman-espazioen falta da. Ildo horretan, autonomia-erkidego batzuek hartutako neurriak nabarmendu behar dira, eraikinei erantsitako espazio irekiak eraikitzea sustatzearen aldekoak. Hala ere, alderdi hori kontuan hartu behar da gure etxebizitzari eragiten dieten bi arazo nagusiekin batera: alegia, irisgarritasunik eza eta isolamendu termikorik eza. Horrek esan nahi du auzo-mailan birgaitze sakoneko jarduketak sustatu behar direla; jarduketa horiek hirigintza-plangintzan bertan integratuta eta jasota egon beharko lukete. Azpimarratu behar da birgaitzea funtsezkoa dela gure suspertze ekonomikorako, enplegu gehien sortzen duen deskarbonizazio-estrategia baita; enplegu espezializatua eta deslokalizatu gabea.



Egilea:

Silvestrina
S. Coop.


Kokapena:

Madril
(Madril)

Hirien sistema. Gizarte-eginkizun berrietarako mugikortasuna

Hiri modernoak, Sert eta Le Corbusier-ek joan den mendeko 30eko hamarkadan bururatuak, megahiri lausoa eraikitzeko ideia sortu zuen, hiriaren banaketa funtzionalean eta pertsonen eta salgaien mugikortasunean oinarritutako eredia (batez ere autoz eta kamioiz). Osasun-larrialdiak eredu hori berrikusteko beharra hiri-politiken erdigunean jarri du, dagoeneko zalantzan zegoena ereduaren ondorio ekologiko eta sozialengatik.

“Hirien sistema”k Madrilgo KALEAK BIRKONFIGURATZEKO ESTRATEGIA bat proposatzen du, beste hiri batzuetan errepikagarria. Hurbiltasuneko nodo berriak eta eguneroko bizitza kudeatzeko espazioak sortzea da helburua, hiri handiak birkonfiguratzen eta egungo osasun- eta ekogizarte-krisiaren egoerara egokitzen lagunduko dutenak.



**Egilea:**

OREKARI estudio
eta Salomé
Wackernagel

Kokapena:

Iruñea
(Nafarroa)

PeriferiaBirpentsatu

Hiri-aldiria birpentsatzea elkarlaneko hirigintza-prozesu bat da, Iruñea inguruko eremuetako espazio publikoaren azterketa, birjabetzea eta berpiztea ahalbidetzea helburu duena. Proiektu honek espazio publikoaren aktibazioa eta jabetzea bilatzen du, espazio publikoa kultura sortu eta egin ahal izateko espazio gisa ulertuta. Horretarako, arkitektura erabiltzen da espazio berrien tresna eraldatzaile eta sortzaile gisa, gizarte-ahalduntzea laguntzeko eta ingurune hurbileneko kide izaten laguntzeko.

Aldiriko leku bakoitzean elementu mugikor bat eraikitzen da, kulturari eusteko eta aktibatzeke arkitektura iraungikorra, gutxiegi erabilitako eta oraindik esleitu gabeko espazio publikoa suspertzen duena (adibidez, orube hutsak). Programa guztia lantegi parte-hartzaileen bidez gauzatzen da, auzo edo herri bakoitzeko biztanleak tartean sartuz. Kultura-espazio itxietatik urrunduz, hiri-aldiria birpentsatzeak kalea topaleku gisa agerrarazi nahi du, non kultura eta arte garaikidea guztiontzat eskuragarri bihurtzen diren.



Egilea:

Colectivo Urbanas

Kokapena:

Iruñea, Gares,
Lizarra eta Zizur
Nagusia (Nafarroa)

Jane Jacobs-en paseoak: Hirigintza genero-ikuspuntutik

Janeren Paseoak (Jane's Walks) Jane Jacobs-en heriotzatik (1916–2006) sortutako nazioarteko proiektu bat da. Hiri-aktibista, soziologoa, kazetaria, olerkaria, ikertzailea eta hirigintza jasangarrian eragin handiena duen ahotssetako bat, bere lanari esker: “Hiri handien heriotza eta bizitza”. Maiatzaren 5ean ospatzen dira, urtero, 200 hiritan baino gehiagotan, hiria herritarren ikuspegitik eta herritarrekin aztertzen duen metodologiarekin, eta bokazio parte-hartzaile eta eraldatzailearekin.

Urbanas Kolektiboa, partaidetzazko irabazi-asmorik gabeko elkartea, 1999an sortua, emakume profesionalen diziplina anitzeko talde batek osatzen du: arkitektoak, hirigileak, biologoak, ekonomialariak, soziologoak, politologoak, abokatuak eta psikologoak... Kolektiboak Jane Jacobs-en paseoen metodologia ekarri du Nafarroara, Iruñeko Arrosadia eta Sanduzelai auzoko Kolektiboaren urteroko proiektu gisa, eta bere ardurapean, prestakuntza- eta partaidetza-lantegiak eta paseoak egiteko Garesen, Lizarran eta Zizur Nagusian.

El PASEO de JANE

Tejencos recién a pie de calle



Egilea:

Madre de Dios
Auzo Elkartea

Kokapena:

Logroño
(Errioxa)

Calles Abiertas Madre de Dios auzoan

Madre de Dios Auzo Elkartearen iritziz, Logroñoko Udalak auzoaren erdialdean egindako “Kale Irekiak” izeneko esku-hartzea aukera eta mehatxua da aldi berean.

“Hirigintza taktiko”ko esku-hartze bat da, Covid-19k eragindakoa. Horren barnean, “premiatzko neurri” gisa, aldez aurreko informazio- eta partaidetza-prozesurik gabe ezarri da.

Hala ere, hirigintzak pertsonen bizitzan duen eragina nabarmentzen du, aldaketa sozial ekonomikoek eta zainketen krisiak eragin handia izan duten langile eta kultura anitzeko auzo horretan.

Horrela, taktiketarik estrategiara pasatzeko aukera irekitzen da. Bai eta, bizikidetzaren, ekonomia-jardueraren, aisialdiaren edo kulturaren zerbitzura egonen den tresna izango den hirigintza proiektatzeko ere, parte-hartzetik abiatuko dena eta ongi bizitzen lagunduko duena. Aldi berean, osasunaren zerbitzura egonen den tresna izan nahi du.



**Egilea:**

Noain-Elortzibarko
Udalaren Agenda
21 Saila

Kokapena:

Noain-Elortzibar
(Nafarroa)

Lorategi jasangarriak

Helburua pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, ohiko berdeguneak funtzio anitzeko gune bihurtuz. Jarduerak, sozializazioa, bioaniztasuna, ingurumen-hezkuntza eta efizientzia ekartzeko berdeguneen mantentze-lanetan, karbono-aztarna murrizten den bitartean.

Hori guztia ikasleen eta, oro har, herritarren protagonismoa eta parte-hartzea sustatuz. Berdegune publikoen egungo erabilerak eta erabilera potentzialak identifikatzean datza, diagnostiko baten bidez eta ekintza-plan bat garatuz. Erresilientziaren, gozamenaren, parte-hartzearen eta hiri-izaeraren ikuspegitik, ingurune berde hurbila eraldatuko duten ideiak eta proposamenak tokiko erakundeen eta pertsonen eskura jartzeko. Hauen ezagutarazpena edota parte hartzeko aukera eskeiniz.



Proiektuen katalogoa

Iruñea “berdeagoa” eta
“Oinezkoentzako espazio
gehiago”rekin

Accessibility Digest

Natura-ingurunea Iruñerriko hiri-
bilbean integratu

Kultura Agertoki Berriak

@escenasocovid

Berdea, berdeagoa, arras berdea

Bizitzeko leku aparta

**Egilea:**

Iruñeko Udala

Kokapena:

Iruñea

(Nafarroa)

Iruñea “berdeagoa” eta “Oinezkoentzako espazio gehiago”rekin

Iruñea “30 Hiria” bihurtzeko estrategien barnean, hiriko oinezkoen pasabideetan esku hartu da, oinezkoen bidegurutzeen aurreko espazioetan ikusmen-oztopoak kentze aldera. Esku-hartzea hiri osoan aplikatu beharreko bi irtenbide-motatan gauzatzen da, auzo bakoietzera egokitutako jarduera taktikoen bidez:

Iruñea “Berdeagoa”k hiri-azpiegitura berdean landare egokituak eta drainatze jasangarriko irtenbideak dituzten espazio txikiak gehitzen ditu; horiek ez dute ureztatzeko premiarik, eta euri-uren bilketa arautzen dute.

Iruñeak “Oinezkoentzako Espazio gehiago” ekimenarekin, egoteko eremu txikiak sortzen ditu, ondoko espaloietako oinezkoen joan-etorrien eremu lasai gisa, eta osasun-segurtasuneko distantziak betetzen lagunduz.

Bi bilbe horiek gainjarri egiten dira, eta auzo bakoitzean eragin handiena izan dezaketan konponbideak eta horiei lotutako ingurumen-eta gizarte-onurak kontuan hartuta, kalez kale hautatzen dira.





Egilea:
Accessibility Digest

Kokapena:
Espainia

Accessibility Digest

Accessibility Digest gida grafiko bat da. Irigarritasuna aplikatzea eta diseinu unibertsala errazteko beharrezkoa den informazioa jasotzen du, gure etxebizitzak eta espazio publikoak irisgarriagoak, inklusiboagoak, higienikoagoak eta jasangarriagoak izan daitezen.

Fitxa teknikoen bilduma bat da. Horietan irigarritasun-parametro desberdinak marrazkiekin, arau-datuekin eta jardunbide egokiekin azaltzen dira, araudia kontsultatzeko denbora murriztuz eta aplikatzea erraztuz. Espainian indarrean dagoen EKTan oinarrituta, gida DALCO (Ibili, Atzeman, Lokalizatu eta Komunikatu) eskakizunen arabera antolatzen da. Eskakizun horiek UNE 170001 arau teknikoan garatzen dira (EKTan jasota dago), eta espazioarekin elkarreaginean aritzeko eta gure eguneroko bizitza garatzeko ekintzen multzoa dira. Gida honek berrikuntza dakarkio diseinuari, araudiaren erabilera sinplifikatzen duelako eta adostasuna ematen duelako lor daitezkeen konponbideetan, aniztasunaren bat (funtzionala edota adimenekoa) duten pertsonen lankidetzan baliozkotuak.



**Egilea:**

Iruñerriko
Mankomunitatea
(MCO-SCPSA)

Kokapena:

Iruñerria
(Nafarroa)

Natura-ingurunea Iruñerriko hiri-bilbean integratu

Iruñerrian ibai-parkea handitu:

Ibai-pasealekua 5 km handitu da Oltza udalerrian. Ekintza horrek zendea horretako herrien konektibitate berdea errazten du, eta, gainera, Barañaindik hiri-aglomerazioaren landa-eremurako irteera hobetzea dakar.

Uharteko Areatzako Arga ibaiaren meandroa hobetzea (50.000 m²). Gune zaharberritua da, uholde-egoeretan ibaia zabaltzen laguntzen duena; horrez gain, aisialdirako espazio naturala da aipatutako udalerrirako.

‘Ezkaba’ eskualdeko parketa sortu:

100 km²-ko gune bat izanen da, 8 udalerriri dagokiena, behar bezala ordenatua eta kudeatua, Nafarroako biztanleriaren erdiaren gozamenerako.



**Egilea:**

La Casa del
Reloj eta Vicus-
en lankidetz-
erkidegoa

Kokapena:

Cascante
(Nafarroa)

Kultura Agertoki Berriak

Kultura Agertoki Berriak proiektua ‘Nuevos Tiempos’ Laborategiaren emaitza da, ‘La Casa del Reloj’ lankidetz-erkidegoak bultzatutako ekimena. Testuinguru horretan, Cascanteko Vicus Kultura Elkarateak oso ideia interesgarria lantzea proposatu zuen. Espazio tradizioaletatik haratagoko Kultura Agertoki Berriak bilatzea proposatzen zen, espazio publikoa (bai hirigunean bertan, bai hirigunetik kanpo) beste dimentsio bat eskeiniko duten leku berri gisa hartuz. Proposamena COVID-19aren ondorioz toki itxietan ekitaldiak egiteko ezarritako mugaren irtenbide gisa sortu zen. Ideia hori hainbat kolaboratzaileen laguntzarekin bihurtzen da prototipo, eta bestelako dimentsioa, ikuspegi anitzekoa, hartu du. Espazio publikoan kultura-agertokiak birpentsatzeak, horien balorizazioa nabarmendu zuen (arkitekturari, zirrarei eta bestelakoei dagokienez). Hortik aurrera, parte hartzeko, paisaiari balioa emateko, horren dimentsio multisentsorialerako, etab.-erako formulak proposatu ziren.

LABORATORIO*** NUEVOS ESCENARIOS



**Egilea:**

Alicia Berlinches
(UAH) eta Miriam
Bùe (ETSAM)

Kokapena:

Digitala

@escenasovid

@escenasovid-etik uste dugu munduko pandemia honen aurreko egoeran bazeudela aldatu behar ziren espazio-, hirigintza- eta gizarte-alderdi asko, estigmarekin hautsi ahal izateko aldatu edo, gutxienez, ikusarazi egin behar zirenak. Hala ere, egia da, batez ere berrogeialdian, askoz denbora eta kontzientzia gehiago hartu dugula gauzak arretaz aztertzeko; normalean ezin izaten dugu halakorik egin gure gizarteek ezartzen diguten eromenezko erritmoagatik. Batez ere hirietan bizi den “gelditasun tenkatu” hori behatzea, haietatik urrun gaudenean sentitzen dugun “patxada perfektu” hori oroitzea eta baloratzea.

Horregatik, asmoa da ilustrazioaren, espazialtasunen analisisien eta hausnarketaren bidez, espazio-, gizarte- eta bizi-aukera berrien bila murgiltzea, eta geure burua murgildu; alarma-egoerak ezarri zuen dekretuaz geroztiko espazioaren esperimenezko abiatu den gogoeta-espazioa.



**Egilea:**

msd paisajismo

Kokapena:

Iruñea


(Nafarroa)

Berdea, berdeagoa, arras berdea

Proiektu honen xedea da Iruñeko auzo baten naturalizazioa hiri-lorategi kontzeptu berri batekin integratzea. Naturalizazioaren helburua berdeguneak ugalketa-aldian mantentzeko modua aldatzea da, haien bioaniztasuna babesteko. Lorategi-hirien kontzeptu berria honetan datza: tamaina handiko zuhaitzak eta hazkunde libreko zuhaixkak gehitzea eta belarkiak ereitea berreskuratutako eremuetan, eremu irekien zonifikazio berri baten bidez (lehendik dauden kaleak, espaloiak, plazak eta oraindik erabilera zehaztu gabea duten tokiak), eta zolatutako gainazalak desklasifikatuz.

Integrazio-asmu hori lurraldearen antolamenduko plan global baten barnean sartuta dago. Asmoa da, halaber, auzoko kolektiboek egindako lanari jarraipena ematea: lorategiak auzolanean, hiri-baratzeak, Iruñea lorea da, eta abar, COVID-19aren pandemiak dakarzkigun egoera berrietara egokituz.

NUEVA ZONIFICACION CALLE JUAN DE TARAZONA



**Egilea:**

El Buen Vivir

Kokapena:

Nafarroa

Bizitzeko leku aparta

Bizi-kalitatean esplizituki lan egiten duen udalerrien eta lurraldeen sare bat da; bizi-kalitatea ulertuta ongizate subjektiboaren eta jasangarritasunaren (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) konbinazio gisa. Hainbat plan diseinatu dira, behar desberdinak dituzten udalerriek parte hartu ahal izan dezaten. Aurreikusitako jardueren artean, sarean parte hartzea dago; sare horretan ezagutzak eta esperientziak trukatu dituzte, udalerraren ikuspegia eta garatu beharreko ildoak garatzeko partaidetza-topaketak eginen dituzte, prestakuntza eta sentsibilizazioa landuko dira, eta xehetasun-azterlanak jarriko dira abaian. Parte hartzen duten tokiek “Leku aparta bizitzeko” bereizgarria jasotzen dute, eta “Leku aparta bizitzeko” nazioarteko sarean sartzen dira. Sare hori toki-erakundeetan topagunea da, eta esplizituki lantzen du herritarren bizi-kalitatea.



ERRONKEN KOADERNOA

Hiri eta Lurralde Jasangarriak eta Erresilienteak

Espazio Publikoa eta Berdeguneak

Ekipamendu eta Zerbitzu Publikoak

Etxebizitza

Mugikortasuna eta Garraioa

Kudeaketa eta Gobernantza Tresnak

ERRONKEN KOADERNOARI BURUZ

Dokumentu honetan, Hirigintza Covid Garaian topaketan egindako Elkarrrekin Diseinatzeko Tailerrean landutako erronken hautaketa jasotzen da. Erronka batzuk gai batean baino gehiagotan sartu dira, hainbat ikuspegitako landu ahal izateko.

Nazioarteko agenden (Agenda 2030), agenda nazionalen (Espainiako Hiri Agenda) eta agenda autonomikoen azterketatik lortutako erronken laburpena da, eta horietatik abiatuta, Nafarroako lurraldearen errealitatearekin nolabait lotuta dauden erronka batzuk hautatu dira. Erronka horiek hirigintzak eta lurralde-plangintzak aurre egin beharko dieten erronkak agerian uzten dituzte, lanean jarraitzeko abiapuntua izanda. Ez dira, inola ere, erronka eskusibo gisa aurkezten, etorkizuneko estrategiak formulatzen hasteko hautaketa erabilgarri gisa baizik.

Erronkak honako gai hauetan multzokatuta aurkezten dira:

- + Hiri eta Lurralde Jasangarriak eta Erresilienteak
- + Espazio Publikoa eta Berdeguneak
- + Ekipamendu eta Zerbitzu Publikoak
- + Etxebizitza
- + Mugikortasuna eta Garraioa
- + Kudeaketa eta Gobernantza Tresnak



MOVILIDAD Y TRANSPORTE

Cuaderno de Retos
Taller Co-diseño
18.02.2020



CIUDADES Y TERRITORIOS SOSTENIBLES Y RESILIENTES

ENCUENTRO URBANISMO EN TIEMPOS DE COVID
Habitar y transformar los espacios públicos

Espazio publikoak bizileku eraldatu
HIRIGINTZA COVID GARAIAN TOPAKETA

Cuaderno de Retos
Taller Co-diseño
18.09.2020



MOVILIDAD Y TRANSPORTE

ENCUENTRO URBANISMO EN TIEMPOS DE COVID
Habitar y transformar los espacios públicos

Espazio publikoak bizileku eraldatu
HIRIGINTZA COVID GARAIAN TOPAKETA

ESPACIO PÚBLICO Y ZONAS VERDES

MOVILIDAD Y TRANSPORTE

ENCUENTRO URBANISMO EN TIEMPOS DE COVID
Habitar y transformar los espacios públicos

Espazio publikoak bizileku eraldatu
HIRIGINTZA COVID GARAIAN TOPAKETA

**Hiri eta
Lurralde
Jasangarriak
eta
Erresilienteak**

1.

“Lurralde-antolamendua ekonomiaren, kulturaren eta natura-baliabideen plangintzarekin lotzeko neurriak sartu. Helburua despopulazioa mugatzea eta natura kontserbatzen eta landa-erabilera tradizionalak babesten laguntzea da, bai eta biztanlegune txikiei arreta berezia eskaintzea. Despopulazioa, funtsean, lurralde-arazo bat da, ikuspegi estrategiko ezak eta tokiz gaindiko garapen ezak eragindakoa”.



1.1. Lurzorua bere lurralde-ingurunearekin bateragarria izateko moduan antolatu



2.4 Nekazaritza-jarduera jasangarriak eta erresilienteak

11.a Hiri-eremuen, hiri-inguruko en eta landa-eremuen

2.

“Landa- eta hiri-eremuen arteko ahal denik eta lotura handiena bultzatu, haien arteko elkarrekiko mendekotasuna sustatuz.

Ekonomia-, ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-politiken bide hartuz. Hiri- eta hiri-inguruko basogintza- eta nekazaritza- jarduera ordenatuak, abeltzaintza-jarduerak eta landa-garapen jasangarriko politikak bultzatuko dituzten neurriak ezarriz”.



1.1. Lurzorua bere lurralde-ingurunearekin bateragarria izateko moduan antolatu



2.4 Nekazaritza-jarduera jasangarriak eta erresilienteak

11.a Hiri-eremuen, hiri-inguruko eta landa-eremuen

3.

“Udal estalkietan, hiri-altzarietan, lur gaineko aparkalekuetan eta bestelakoetan autokontsumo energetikoa erraztu, eta eraikin pribatuen estalkietan autokontsumo energetikoa sustatu, udal-eremuko zerga-neurrien bidez (obra-lizentziak, OHZ, eta abar)”.



4.1 Efizienteagoak izan energian eta energia aurrezten



7.1 Energia eskuratzeko aukera unibertsala

7.2 Energia berriztagarriak

7.3 Energia-efizientzia

7.a Ikerkuntza eta inbertsioa energia garbietan

7.b Azpiegitura eta teknologiak garapen bidean diren herrialdeetan en desarrollo

4.

Lotura du hauekin:

[5, 6]

Bat dator honekin:
ETXEBIZITZA

[1]

“Eraikinak birgaitzea eta hiria berroneratzea sustatu eta bultzatu, jarduera horren eta hiri berria egikaritzearen artean oreka egokia lortzeko. Bereziki, hiria berroneratzeko proposamenak bultzatu, kooperatibismoaren arlotik datozenak”.



2.5 Hiria berroneratzea sustatu



5.

Lotura du hauekin:

[4, 6]

Bat dator honekin:

ETXEBIZITZA

[3]

“Lehendik dagoen eraikuntza-parkearen energia-efizientzia hobetzea bultzatu, eskura dauden eta erabil daitezkeen neurri guztiekin: fiskalak, administrazio-izapideak arintzekoak eta sinplifikatzekoak, eta pedagogia-kanpainak abian jarritz”.



2.6 Eraikinen kalitatea eta jasangarritasuna hobetu



6.

Lotura du hauekin:

[4, 5]

Bat dator honekin:

ETXEBIZITZA

[4]

“Eraikinetarako eta etxebizitzetarako material egokiak erabiltzea bermatuko duten eta berrerabiltzea erraztuko duten eraikuntza-teknika eraginkorrak erabili. ‘Eraiki iraun dezan’ litzateke afera”.



2.6 Mejorar la calidad y sostenibilidad de los edificios.



7.

Lotura du hauekin:

[8, 9]

“Plangintzan arrisku naturalen mapak sartu, uholdeek, euri-jasek, itsas mailaren goratzeak, gutxiegitasun hidrikoak, lurrak irristatzeko arriskuak eta bestelakoek eragin ditzaketen hiri-eraldaketako jarduketak saiheste aldera”.



3.1 Lurralde- eta hiri-eredua klima-aldaketaren ondorioetara egokitu eta klima-aldaketaren prebentzian aurrera pausoak eman



13.2 Politika estrategikoak eta nazio-planak
13.3 Hezkuntza eta sentsibilizazioa
11.b Hirietan hondamendi-arriskuak murriztu

8.

Lotura du hauekin:

[7, 9]

“Plangintza-tresnetan aurreikuspen berriak sartzea, klima-aldaketaren ondorioak egokitzearekin eta arintzearekin lotuta: itsasoaren igoera, lurzoru emankorraren galera, euri-jasak, baso-suteak, tenperaturen igoera edo lehorte-aldi handiak.”



3.1 Lurralde- eta hiri-eredua klima-aldaketaren ondorioetara egokitu eta klima-aldaketaren prebentzioan aurrera pausoak eman



13.2 Politika estrategikoak eta nazio-planak

13.3 Hezkuntza eta sentsibilizazioa

11.b Hirietan hondamendi-arriskuak murriztu

9.

Lotura du hauekin:

[7,8]

“Klima-aldaketaren aurrean erresilientzia-planak landu eta, halakoak badaude, ezagunak eta herritarrek erraz eskuratzeko modukoak direla bermatu. Tresna hori aprobetxatzea bizi-baldintzak zaintzeko eta hobetzeko”.



3.3 Klima-aldaketarekiko erresilientzia hobetu



1.5 Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-hondamenekiko erresilientzia

11.5 Hondamendiak, eta horiekiko zaurgarritasuna murriztu

13.1 Erresilientzia eta egokitzapena

10.

Lotura du honekin:

[11]

“Turismo-xede adimenduneko diagnostikoak eta ekintza-planak landu daitezzen bultzatu, turismo-xedean jasangarritasuna eta lehiakortasuna hobetze aldera”.



7.2 Turismo adimenduna, jasangarria eta kalitatekoa, eta tokiko ekonomiaren funtsezko sektoreak sustatu



8.9 Turismo jasangarria
12.b Turismo jasangarria

11.

Lotura du honekin:

[10]

“Ekoturismoa eta landa-turismoa sustatu, atzera egiten ari diren ingurune eta lurralde-guneak ekonomikoki eta modu jasangarrian dinamizatzeko, jardueraren eta ekonomia-sektoreen eskaria dibertsifikatzeko”.



7.2 Turismo adimenduna, jasangarria eta kalitatekoa, eta tokiko ekonomiaren funtsezko sektoreak sustatu.



8.9 Turismo jasangarria
12.b Turismo jasangarria

12.

Bat dator honekin:
ESPAZIO PUBLIKOA
ETA BERDEGUNEAK

[16]

“Egungo hirietako bero-uhartea murriztu, hiri-inguruneko klima-portaeran eragiten duten faktoreetan eraginez. Horretarako, baliagarria izan liteke espazio publikoen iragazkortasuna eta landaretza sustatzea, eta hiri-plangintzako eta -kudeaketako tresnetan hiri-klimaren mapaketa txertatzea”.



3.1 Lurzorua bere lurralde-ingurunearekin bateragarria izateko moduan antolatu



2.4 Nekazaritza-jarduera jasangarriak eta erresilienteak

